



GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena Gai nagusiak

CONSEJO DE GOBIERNO

Dossier de Prensa Asuntos destacados

Vitoria-Gasteiz, 2016ko ekainak 7

Vitoria-Gasteiz, 7 de junio de 2016

Lehendakaritza

GOBERNU KONTSEILUAK BERDINTASUNERAKO VI PLANAREN EBALUAZIOA ONARTU DU

Gobernu Kontseiluak gaur “*Emakume eta Gizonen VI Plana botere publikoen alorrean gauzatzeari buruzko jarduera 2014*” txostena onartu du Emakundek-Emakumearen Euskal Institutuak egindakoa.

VI Planaren ebaluazioaren helburua da ikustea administrazio publikoek Berdintasun Plana gauzatzean nagusiki egin dituzten akzioak eta politikak zeintzuk izan diren. Zehazki, aztertzen da ze akzio burutu diren; zenbatekoa izan den administrazio bakoitzaren inplikazioa, erabili dituzten errekurtsioak eta programek izan duten eragina. 04/2005 Berdintasun Legeak Gobernua behartzen du legegintzaldi bakoitzean Berdintasun Plan bat onartzera, eta horrekin batera behartzen du baita ere plan hori gauzatzeari buruzko ebaluazioak egitera. Agindu honi jarraituz onartu da gaur aipatutako txostena.

Honako hauek dira ebaluazioaren emaitzetako batzuk:

- Gero eta sistematikoagoak diren eta erakundeetan integratuagoak dauden berdintasun-politikak planifikatzen dira, eta esku-hartzeen ebaluazioa ere aurreikusita egoten da politika horietan; Berdintasuna bultzatzeko plangintza finkatuta dago Eusko Jaurlaritzaren sailetan, foru-aldundietan eta EAEko udal gehienetan (tamaina esanguratsua duten udaletan bederen). Gainera, beste erakunde batzuek ere badute berdintasun-plana (UPV/EHUK adibidez).
- Berdintasunerako administrazio-unitateak eta euskal administrazioetan berdintasuna bultzatzen duten langileak direla-eta, ebaluazioan parte hartu duten ia erakundeen erdiak berdintasunerako unitateak dituzte. Bestalde, erakundeek adierazi dutenez, 218 pertsonak egiten dute lan EAEn berdintasuna bultzatzeko.
- Berdintasun-polituketara bideratutako baliabide ekonomikoak direla-eta, 69 erakundek esleitu dute aurrekontu espezifiko bat berdintasun-politikak sustatzeko; zehazki, 22 milioitik gorako zenbatekoa esleitu dute guztiek (22.347.528 €). Betearazitako aurrekontua handiagoa izan da (35.433.275 €). Parte hartu duten entitate guztiek erantzun ez badute ere, aurrekontu horiek esleitutako guztizkoaren % 0,09 eta euskal erakundeek 2014an betearazitako guztizkoaren % 0,1 izan direla esan daiteke.
- Administrazioetan berdintasun politikak bultzatzen dituzten langile teknikoaren artean hamarretik bederatzik emakumeak dira.

- EAEko administrazioetan lan egiten duten 2.671 pertsona inguruk jaso du Berdintasun prestakuntza, maila ezberdinetan. Gehienak emakumeak dira, bestelako formakuntzarekin konparatuz emakumeen portzentai altua oso nabaria da.
- Prestakuntza eta sentsibilizazio akzioak izan dira Erakundeek ekintzen artean ugarietak. Honek VI planaren ardatzari erantzuten dio, hau da, balio aldaketaren beharrari.
- Beste helburu nagusietako batek, emakumeen kontrako indarkeriarekin bukatzekoak, ere aurrekontuen zati garrantzitsu bat bereganatu du.
- Ekintza gehienak ikuspuntu eta hartzaile orokor bat izan dute, eta honen barruan gizon, emakume eta transgenero pertsonak daude. Ekintzen herena egon da talde konkretu bati zuzendua.

Ebaluazioa eta zifren txostena Emakunderen webgunetik jaitsi daitezke

www.emakunde.euskadi.eus

Ebaluazioa: Berdintasuna politika publikoetan/[Politika publikoen ebaluazioa](#)

Zifren txostena: Zerbitzuak/[Zifrak](#)

Lehendakaritza

JAURLARITZAK ONARTU DU EUSKAL ETXEENTZAKO LAGUNTZA-DEIALDIA, 862.307 EURO EMANGO DITUENA

Eusko Jaurlaritzak bide eman dio Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko Euskal Etxeentzako eta euskal etxeen federazioentzako eta konfederazioentzako diru-laguntzen aurtengo deialdiari. Diru-laguntza horiek Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren bidez banatzen ditu.

Orotara, 862.307 euro bideratuko ditu laguntza horietara, 80.000 gehiago iaz baino. Kopuru hori bi erditan bereiziko da, diru-laguntza banatuta dagoen kapituluaren arabera: bata, gastu arruntak eta jardueren antolakuntza ordaintzeko, eta bestea, ekipamendu- eta azpiegitura-gastuak ordaintzeko.

Hala, laguntzaren zatirik handiena –782.307 euro– Euskal Etxeen urteko programak edo jarduera zehatzak laguntzera bideratuko da, nagusiki, gazteria, emakume, kanpo-irudi eta komunikazio, memoria historiko, gastu arrunt eta funtzionamenduaren arloko jardueretara.

Gainerakoa –80.000 euro–, zentroen beraien egoera hobetzera bideratutako jardueren gastuak osorik edo zati batean finantzatzera bideratuko da; esaterako, ezbeharrek eragindako kalteak konpontzeko, hesi arkitektonikoak kentzeko, euskal etxe berriak eraikitzeko, gazteentzako lekuak egokitze eta gazteen zein emakumeen jardueretan teknologia erabiltzeko.

Gaur onartu den deialdian parte hartu dezakete mundu osoko 25 herrialdetan dauden 190 euskal etxeek. Deialdia EHAA-n argitaratzen den egunetik hasita, hilabete bateko epea egongo da eskaera egiteko.

Herri Administrazioa eta Justizia

JAURLARITZAK HIRU URTEAN BEHIN EBALUATUKO DU ADMINISTRAZIOAREN KUDEAKETA-EREDUA, INDARGUNEAK ETA INDARTU EDO HOBETU BEHARREKOAK HAUTEMATEKO

- Eusko Jaurlaritzako eta bere organismo autonomoetako langileek egingo dituzten ebaluazio horien ondoren, aldi jakin baterako indartze- eta hobekuntza-plan espezifikoak ezarriko dira.
- Ebaluazio horiek ekaina honetan bertan hasiko dira. Kolaboratzaile boluntarioen sare batek laguntza eskaini eta kudeaketa publikoaren hobekuntzarako kultura sustatu du.
- Kudeaketa publikoaren sistemak eta prozesuak hobetzea da xedea, administrazioa eraginkor eta efizienteagoa izan dadin, herritarren aurreikuspenak bete eta beharrak asetzeko.

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran onartu du kudeaketaren ebaluazioak egiteko eta indartze- eta hobekuntza-planak osatzeko eredu eta kudeaketa-eredu horretako kolaboratzaile-sarearen eraketa. Izapide beharrezkoa da kudeaketa hobetzearen ardatz estrategikoa garatzeko, zehazki, 2014ko ekainean onartutako 2014-2016 aldirako Jaurlaritzaren Berrikuntza Publikorako Planaren barneko 4. Ardatza, guztira Berrikuntza Publikorako Planak 36,5 milioi euroko aurrekontua du.

Kudeaketa publikoaren sistemak eta prozesuak hobetzea da Eusko Jaurlaritzaren xedea, eta, horretarako, kudeaketa-arloko jardunbide egokiak ezarriko ditu sistematikoki eta modu mailakatuan, administrazioa eraginkor eta efizienteagoa izan dadin eta herritarren aurreikuspenak bete eta beharrak asetzeko.

EBALUAZIO-EREDUA

Gaur onartutako dokumentuan ezarritakoaren arabera, 3 urtean behin egin beharko da administrazioaren kudeaketa-sistemaren ebaluazioa, Eusko Jaurlaritzako kudeaketa publiko aurreratuko eredu oinarritzat hartuta. Hala, sail eta organismo autonomo bakoitzaren indarguneak eta indartu edo hobetu beharrekoak hauteman eta, behar izanez gero, aldi baterako plan espezifikoak ezarriko dira.

Eusko Jaurlaritzako eta ebaluatutako organismo autonomoetako langileek beraiek eta ebaluazioa egiteko laguntza eskainiko du kolaboratzaileekin eta Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzak, esperientzian eta ezagutzan oinarrituta, proposatutako kideekin osatutako taldeak egingo dituzte ebaluazio horiek.

Ebaluazio honek ondorengo helburuak ditu, besteak beste:

- Kudeaketa publiko aurreratuaren eredua modu mailakatuan ezartzea Eusko Jaurlaritzan.
- Antolaketa-egituren artean kudeaketa-hobekuntzari buruzko ezagutza partekatzeko bidea erraztea.
- Etorkizuneko jardueren plangintza egitea.
- Sail edo organismo autonomo guztietako antolaketa-egituren arteko koordinazioa eta zeharkakotasuna sustatzea.

Lehen ebaluazioak, eta indartze- zein hobekuntza-planak, aurtengo ekainean egingo dira eta 2017an jarraipena izango dute. Ebaluazioa baino lehenago, programa pilotu bat betearazi da, Herri Administrazio eta Justizia, Osasun, Segurtasun eta Ogasuna eta Finantzetako sailek parte hartu dutena.

KOLABORATZAILEEN SAREA

Kolaboratzaileen sarea boluntarioek osatzen dute. Boluntario horiek, Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzarekin koordinatuta, kudeaketa publiko aurreraturako hobekuntza-kultura hedatuko dute administrazioko langile publikoen artean.

Kudeaketa ebaluatzeko laguntza-taldean parte hartuko du sare horrek, eta horretarako informazio eta prestakuntza espezifikoak jasoko dute sareko kideek kudeaketa hobetzeko bitartekoen gainean. Hala, atxikita dauden sailetako edo organismo autonomoetako antolaketa-egituretan lagundu ahal izango dute. Sareko kideak Eusko Jaurlaritzakoak izango dira:

- Administrazio orokorreko funtzionarioak eta langile publiko lan-kontratudunak.
- Organismo autonomoetako funtzionarioak eta langile publiko lan-kontratudunak.
- Unibertsitateaz kanpoko irakasle funtzionarioa.
- Hezkuntzako irakasle lan-kontratuduna.
- Hezkuntzako langile lan-kontratuduna.
- Ertzaintzakoak.
- Justizia-administraziokoak.

Salbuespenez, Osakidetzako edo Euskadiko sektore publikoko zuzenbide pribatuko erakunde publiko, sozietate publiko, fundazio eta partzuergoetako langileek ere parte hartu ahal izango dute.

Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasuna

AGA KOOPERATIBARAKO LAGUNTZAK, BAZKAREN EKOIZPENA BULTZATU ETA INGURUMENAREN INPAKTUA HOBETZEKO

- **135.000 euroren laguntzak dira, eta 2015-2020 aldirako LGPren barruan emango dira.**
- **Nekazaritzako ustiategien errentagarritasuna eta modernizazioa bultzatzeko Eusko Jaurlaritzak duen strategiaren barruan.**

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuak proposatuta, Eusko Jaurlaritzako Kontseiluak AGA Kooperatiba Elkarte erakundeari diru laguntza zuzena ematea erabaki du ekainaren 7ko bileran. Emango zaion diru laguntza ustiategietako zuzeneko kostuak murriztera eta ingurumeneko kalteak arintzera bideratutako ekintzek dakartzaten gastuak finantzatzeko izango da.

135.000 euroren diru laguntza izango da, eta zehazki bazkaren ekoizpena bultzatuz autokontsumoa errazteko jarduerak finantzatzeko izango da (.66.000,00 euro), bai eta ustiategiei nekazaritza lurzoruan ingurumeneko kalteak murrizteko hainbat alderdi tekniko eta ekonomikoren gainean aholkuak emateko jarduerak finantzatzeko ere (69.000,00 euro).

Laguntza horiek 2015/2020 aldirako LGPan nekazaritzako ustiategietan inbertsioak egiten laguntzeko jasotakoetako batzuk dira, betiere aurreikusten diren ekintzak ustiategien emaitza ekonomikoak hobetzera, haien tamaina eta ekoizpen orientazioa berregituratzera eta ingurumenari lotutako erronkei erantzutera bideratutakoak badira. Hala, sektoreari eta, zehazki, AGA erakundeari helburu horiek lortzen laguntzeko, proposatu da hainbat ekintza bultzatzea ustiategiei kostuen aurrezpenaz gehiago jakiten laguntzeko, bai eta hondakinak banatzeko sistemak ezartzen laguntzeko aholkularitza teknikoa emateko neurriak ezartzea ere, LGPan ezarritako irizpideetara moldatuta, ondoren LGParen barruko laguntza bidez baliatu ahal izateko.

Enplegu eta Gizarte Politikak

JAURLARITZAK 21 MILIOI EUROREKIN ESTIMULATZEN DU TOKIKO ERAKUNDEEK ENPLEGUA SORTZEKO PROIEKTUAK EGITEA

Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburu Ángel Toñak proposatuta, Jaurlaritzak 21,2 milioi euro bideratzea onartu du gaurko bileran, EAeko toki-erakundeek enplegua sortzeko proiektuak abian jar ditzaten.

Lanbidek kudeatzen duen laguntza-programa horren barneko ekimenak udalerriekin, udalerrri-multzoekin, mankomunitateekin eta kuadrillekin elkarlanean gauzatzen dira. Tokiko enplegurako laguntzak tokiko enplegua sortzeko proiektuak bultzatuko dituzte, lurraldearen garapen sozioekonomikoa eta modernizazioa areagotzeaz eta enpresen lehiakortasuna hobetzeaz bat, horiek guztiak tokiko lan-merkatuaren ezaugarrietara egokituta. Gainera, proiektu horiek gizarte-orientazio argikoak dira, laneratzeko zailtasunak dituzten kolektiboak dituztelako xede, 35 urtetik beherakoak, lehen lana lortzeko, eta iraupen luzeko langabeak kasu.

Mota horretako ekintzak sustatzea barne hartzen du Eusko Jaurlaritzako 2014-2016 aldirako Enplegu Planak, printzipio estrategikoen artean, tokiko ekonomiaren potentziala ustiatzea aipatzen duenez, tokiko eragileak elkarlanean arituta, ekoizpen-abagune berriak hautemateko. Hala diseinuan nola kudeaketa-ereduan, enplegu-politikek tokiko dimentsioa hartu behar dute kontuan, eta lurraldearen beharretara egokitu behar dira.

Lanbidek laguntza-modalitate berri bat eskainiko du aurten, proiektu estrategikoak indartzera bideratuko dena. Atal horretan sartuko dira teknologiaren garapenerako interes estrategikoa duten eta gutxienez 15 lanpostu sortuko dituzten tokiko enpresen enpresa-proiektuen ezarpena edo garapena gauzatzeko proiektuak. Proiektu horietarako, milioi bat euro bideratuko dira.

Proiektu estrategikoak sustatzeko laguntza-lerroaz gain, hiru laguntza-mota eskainiko ditu Lanbidek:

Enplegua sustatzea

Laneratzeko zailtasun bereziak dituzten langabeak aparteko merkatuan kontratatzea lagunduko da diruz. Zuzenean tokiko erakundeen bitartez egin ahal izango dira kontratua, edota laneratze-enpresen, enplegu-zentro berezien edo proiektuak gauzatzea adostutako irabazi asmorik gabeko erakundeen bitartez.

Kontratatorako laguntzak

Laguntza horien helburua langabeak tokiko enpresek merkatu arruntean kontratatzea errazteko babes ekonomikoa ematea da. Horretarako, hainbat jardura abiarazi eta gauzatuko dituzte tokiko erakundeek beraiek.

Lanbidek 15.000.000 euro bideratuko ditu, guztira, aurreko bi jardun-lerroak finantzatzeko.

Toki-garapenerako beste ekintza batzuk

Ekintza-ildo hau langabeziak bereziki astindutako eskualdetan eta udalerrietan enplegua sortzeko proiektuen sorrerara dago bideratuta. Laguntza-lerro horrek 5 milioi euroko aurrekontua izango du.

Azkenik, Lanbidek 203.287 euro bideratuko ditu Arabako eremu kaltetuenetan enplegua sortzeko laguntza-programa berezira, 2016rako EAeko aurrekontuetan aurreikusi bezala, Amurrioko eta Laudioko proiektu jakin batzuk diruz laguntzeko.

Enplegu eta Gizarte Politikak

JAURLARITZAK «GIZARTE INTERESEKO» IZENDATU DU ADSIS FUNDAZIOA

Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburu Angel Toñak proposatuta, Jaurlaritzak, gaur bilduta, «interes sozialeko» izendatu du ADSIS FUNDAZIOA (EUSKADI).

Irabazi asmorik gabeko erakunde hori 1996an eratu zen, premia handiena duen gizarte-kolektiboari, batez ere egokitu ezinik edo marjinazio-egoeran dauden kolektiboari bideratutako mota guztietako gizarte-zerbitzuak sustatzeko eta eskaintzeko. 2008az geroztik etengabe jardun dela egiaztatu du.

Erakunde bat interes sozialeko izendatzea Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako sailak emandako [urriaren 7ko 424/2013](#) dekretuak arautzen du. Interes sozialeko izendatuta, erakunde horiek autonomia-erkidegoko gizarte-zerbitzuen esparruan izandako ibilbidea eta egindako lana aintzatetsi da. Hala, lehentasuna izango dute euskal administrazio publikoen diru-laguntzetan.

Araudiak zehaztutakoaren arabera, erakundeak interes sozialeko izendatzeko, beharrezkoa da, gizarte-zerbitzuak eskaintzeaz eta irabazi-asmorik gabekoak izateaz gain, langileen % 40k kontratu mugagabea izatea.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura

2.449.500 EURO HEZKUNTZA-PREMIA BEREZIAK DITUZTEN IKASLEEN ESKOLA-GARRAIORAKO

Gobernu Kontseiluak Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuak proposatuta, ikastetxe publikoetan edo, salbuespen gisa, itunpeko ikastetxe pribatuetan eskolatuta dauden hezkuntza-premia berezietako ikasleentzat 2016-2017 ikasturtean eskola-garraiorako banakako diru-laguntzak deitzen dituen Agindua onartu du.

Diru-laguntza hauen jasotzaileak izango dira, ezgaitasun larriak izan (ezgaitasun fisikoa, psikikoa edo sentsoriala) eta, antolatutako eskola-garraioa edota ohiko garraio publikoa erabili ezin dezaketen ikasleak, eta hortaz, euren etxebizitzetatik eskoletara joatea erraztuko duen garraio-alternatiba bat behar dutenak. Eskola inklusiboaren aldeko printzipioari jarraiki, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailak ikasle hauek ikasteko edo parte-hartzeko izan ditzaketen oztopoak ezabatu edo leundu nahi ditu deialdi honen bidez, eta eskola-garraioa ez dadila zailtasun bihurtu ikasle bakoitza ingurunerik egokienean eskolaturik egon dadin.

2015-2016 ikasturte honetan, ezgaitasunen bat zuten 885 ikasleren 132 ikastetxetarako garraioa finantzatzen da deialdi honen bidez. Aurreko ikasturtean aldiz, 2014-2015ean, 849 ikasleren 131 ikastetxetarako garraioa finantzatu zen.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura

2016ko EUSKADI LITERATURA SARIETARAKO DEIALDIA

Gobernu Kontseiluak Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren proposamenez, 2016 urteko Euskadi Literatura Sarietarako dei egiten duen Agindua onartu du.

Aurten, Euskadi Literatura Sariak zazpi modalitateetan banatuko dira: Euskarazko literatura; Gaztelaniazko literatura; Euskarazko haur eta gazte literatura; Euskarazko literatura itzulpena; Literatura lanaren ilustrazioa; Euskarazko saiakera, eta Gaztelaniazko saiakera.

Euskadi literatura sariak 18.000 euro gordinez hornituta daude modalitate bakoitzeko. Diru-kopuru hori saritutako lanen egileei emango zaie. Sarituek, era berean, Euskadi literatura sarientzat berariaz Jose Ibarrola Bellidok eginiko «Liburu Nabigatzaile» izeneko eskulturaren ale zenbatua ere jasoko dute. Horrez gain, saritutako lanaren egileek (euskarazko itzulpenaren kasuan salbu) beste 4.000 euro gordin ere jaso ahal izango dituzte, saritutako lana jatorrizkoa ez den beste hizkuntza batean argitaratzeko kontratua sinatu ostean.

Euskadi literatura sariak eskuratzeko aukera, argitaratze unean bizirik dauden egileek idatzi, itzuli edo ilustratutako lanek eduki ahal izango dute. Lan horiek lehen aldiz 2015. urtean argitaratuak izan beharko dute. Hala ere, kasuan kasuko modalitatean sari hau azken hiru deialdietako batean jaso duten idazleen edo ilustratzaileen lanak alde batera utziko dira, nahiz eta aurrez azaldutako baldintzak bete.

Gaztelaniazko literaturaren modalitatean, gaztelaniazko literatura lanen ilustrazioan eta gaztelaniazko saiakeran, hauetako baldintza bat gutxienez bete beharko dute egileek:

1. Euskadiko Autonomia Erkidegoan jaio izana edo bertan administrazio-egoitza izatea Agindua argitaratzen den unean, edo argitaratu aurretik ere administrazio-egoitza eduki izana urte batez gutxienik Euskadiko Autonomia Erkidegoan.
2. Gaztelaniazko literaturaren modalitatean, gaztelaniazko saiakeran eta literatura lanen ilustrazioa modalitateetan, Euskadiko Autonomia Erkidegoko idazle edo ilustratzaile elkarteren baten barruan egotea.
3. Saria irabazteko lana Euskadiko Autonomia Erkidegoko argitaletxe batean argitaratu izana, edo Euskadiko Editoreen Elkartearekin edo Euskal Editoreen Elkartearekin loturiko argitaletxe batean.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura

435.890 EURO IKASLE IJITOEI ZUZENDUTAKO HEZKUNTZA-JARDUERETARAKO

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren proposamenez, gaurko bileran agindu bat onartu du eta agindu horren bidez irabazi asmorik gabeko zenbait erankunderi dei egiten baitzaie, hain zuzen ere, eskolaren esparruan ikasle ijitoei zuzendutako hezkuntza-jarduerak garatzeko Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailarekin elkarlanean aritu nahi dutenei 2016-2017 kurtsoan.

Agindu honek, 435.890 euroko aurrekontuarekin, 2016-2017 ikasturtean ondorengo helburuak lortzeko egingo diren jarduerak diruz laguntzea du helburu: ikasle ijitoen errendimendu akademikoa hobetzea, gero eta ikasle ijito gehiagok lortzea eskola-arrakasta, eta hauen familiek gehiago parte hartzea eskolan antolaturiko bileretan nahiz bestelako jardueretan.

Deialdi honen bidez bultzatzen diren hezkuntza-jarduerak, ikasle ijitoei zuzenduak eta irakasleekin lankidetzan gauzatuko direnak, honako hauek izan daitezke:

- Ikasgelan bertan eta ikasgelatik kanpo irakaskuntza-indargarri diren jarduerak, eskolaratze-ikuspuntutik, eta, ikasleak klaseko martxa jarrai dezan lagungarriak.
- Ikastetxearekin lankidetzan aritzea, ikaskuntza hobetzen laguntzen duten eskola-programetan eta eskolatik kanpoko programetan, ikasle ijitoek jarduera horietan gehiago parte hartu dezaten.
- Ikasleen banakako segimendua, tutoreekin lankidetzan
- Ijito-herria ikastetxe barruan bistaratzen lagunduko duten jarduerak.
- Ikasle ijitoen arrakasta sustatzen eta zabaltzen dutenak; esaterako, ikastetxera eskola-arrakasta izan duten ijitoak eramatea.
- Familiek euren seme-alaben hezkuntza-prozesuan parte hartzea sustatzen duten jarduerak.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura

550.000 EURO HEZKUNTZA-BIKAINASUNERA ZUZENDUTAKO PRESTAKUNTZA-PROIEKTUETARAKO

2016-2017ko ikasturtean hezkuntza-bikaintasunera zuzendutako prestakuntza-proiektu desberdinak egiteko itunpeko ikastetxeak eta Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren menpe ez dauden unibertsitateaz kanpoko titularitate publikoko ikastetxeak (heziketa-zikloak izan ezik) deitzen dituen Agindua onartu du, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren proposamenez, gaurko bileran Gobernu Kontseiluak. Deialdi honek 550.000 euroko diru-kopurua dauka.

Deialdi honetara aurkezten diren proiektuek Prest_Gara Planaren baitan kokatzen den “Praktika egokien bidetik bikaintasunerantz” deituriko ildo estrategikoaren helburuekin bat egin beharko dute. Honako hauek dira aipaturiko helburuok:

- Tresnak ematea ikasleen konpetentzia pertsonala, lorpenerako motibazioa eta ahaleginaren balorazioa lantzeko.
- Irakasleei laguntza ematea bikaintasunerako berrikuntza-proiektuetan.
- Metodologia berrietan edo tresna didaktiko berritzaileetan trebatzea, bikaintasunerako bidean.
- Irakasleei, oro har, eta tutoreei eta orientatzaileei, zehazki, tresnak ematea, zailtasun handienak dituzten ikasleei, alde batetik, eta adimen gaitasun handiak dituzten ikasleei, bestetik, laguntzeko.
- Testuinguru kaltetuetan bizitzeagatik gizarte bazterkeriaren arriskuan egon daitezkeen ikasleek bikaintasuna lor dezaten ikastetxean egiten diren praktika didaktikoetan laguntzea
- Jardunbide egokien esperientziak trukatzeko espazio bat zabaltzea.

Ikastetxea zein irakaslea funtsezkoak dira irakatsi eta ikasteko prozesuan, parte aktiboa izan behar dute hobetzeko prozesuan, eta etengabeko hausnarketan aritu. Horregatik, deialdi honek proposatzen du prestakuntza eta berrikuntza-jarduerak nahiz proiektuak ikastetxeen barrutik eta haien premietatik abiatu beharrekoak direla. Horrela, soluzioak ikastetxean bertan aplika daitezke, eragin onuragarria eta neurgarria izan dezaten. Ikastetxe jakin baten barruko bikaintasun-proiektuek eta esperientzietan eragin handiagoa dute, irakasleei, gainerako langileei eta ikasle guztiei eragiten baitie. Eta aldi berean, antolaketa aldatzeko bidea izan daitezke.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura

2016ko GURE ARTEA SARIETARAKO DEIALDIA

Gobernu Kontseiluak Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren proposamenez, Gure Artea Sariak arautu eta horietarako deialdia egiten duen Agindua onartu du. Sariok, arte plastikoak eta ikusizkoak sustatzea dute helburu.

2016ko deialdi honetan, Gure Artea Sariak hiru ataletan deitzen dira:

- Ibilbide artistikoa aitortzeko saria, 18.000 eurokoa eta pertsona fisikoei zuzendua.
- Sorkuntza lana aitortzeko saria, 18.000 eurokoa eta pertsona fisikoei zuzendua.
- Ikusizko arteen arloan agenteek egindako lana aitortzeko saria, 18.000 eurokoa, eta pertsona fisiko nahiz juridikoei zuzendua.

Gure Artea sarien bidez, egin duten lana aitortu eta arte garaikidean eta euskal kulturaren egindako ekarpena onartu nahi zaie irabazleei. Sortzaileak saritzen dira -bai euren ibilbide profesionalagatik, bai azken urte hauetan egin duten sormen jardueragatik- baina baita beste eragile edo erakunde batzuk ere, arte plastikoaren edo ikusizko arteen eremuan egin duten jardueragatik. Hautagaitzak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, Agindua EHAAren argitaratu eta hurrengo egunean hasita.

Ingurumena eta Lurralde Politika

EUSKO JAURLARITZAK DIRUZ LAGUNDUKO DITU KARTOGRAFIA- INFORMAZIOA HOBETZEKO UDAL-EKIMENAK

Gobernu Kontseiluak oniritzia eman dio Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuaren aginduari, Euskal Autonomia Erkidegoko udalentsako diru-laguntzen oinarri arautzaileak zehaztu eta deialdia egitekoari, informazio-geografikoa hobetu eta udal-mapak egin ditzaten.

Ekimenaren bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoko udalentsako diru-laguntzak arautu nahi dira, interes orokorreko datuen bilketa eta digitalizazioaren bitartez udal-informazio geografikoa hobetzeko. Horrek ez du kenduko udalek, gerora, mapa paperezko euskarrian inprimatu nahi izatea.

200.100 euro bideratuko dira 2016ko ekitaldian diru-laguntza horiek finantzatzeko. Erakunde interesdunek bitarteko elektronikoz egin ahal izango dituzte eskabidea, kontsultak eta prozedura honetako izapide guztiak.

Agindu honetan zehazturik dauden baldintzak, eskakizunak eta prozedurak betez gero, diru-laguntzaren onuradunak izan daitezke Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako udalak.

EUSKO JAURLARITZAK ONIRITZIA EMAN DIO «GI-3610 ERREPIDEA ETA SORABILLATIK ADUNARAKO BIDEGORRIA ETA OINEZKO-BIDEA HOBETZEKO PROIEKTUAK» ERAGINDAKO ESKUBIDEAK ETA ONDASUNAK NAHITAEZ DESJABETZEARI

Gobernu Kontseiluak premiazkotzat jo du Gipuzkoako Foru Aldundiak beharrezko dituen ondasun eta eskubide guztiak okupatzea, nahitaezko desjabetze bidez, «GI-3610 errepidea eta Sorabillatik GI-3022 errepidearekin, Aduna parean, bat egin arteko bidegorria eta oinezko-bidea hobetzeko proiektua (1-EM-5/2015)» gauzatzeko.

Presidencia

EL CONSEJO DE GOBIERNO APRUEBA LA EVALUACIÓN DEL VI PLAN PARA LA IGUALDAD

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy la *Memoria de actuación de los poderes públicos en relación al VI plan para la Igualdad de Mujeres y Hombres de la CAE 2014*.

La Memoria de actuación de los poderes públicos en ejecución del VI Plan tiene como objetivo conocer el grado de cumplimiento del plan por parte de las administraciones públicas. Además de la obligatoriedad de elaborar, a través de Emakunde, un Plan de Igualdad para cada legislatura, la Ley 04/2005 para la igualdad de mujeres y hombres establece también la necesidad de su evaluación periódica y final por parte del Gobierno. La aprobación de hoy responde a esa obligatoriedad.

El primer aspecto reseñable es el de la participación de las instituciones, destacando que se ha producido un aumento de la respuesta a nivel municipal así como la incorporación de nuevas instituciones informantes. En total han participado en la evaluación 116 entidades.

Estos son algunos de los aspectos que se desprenden de la evaluación:

- La planificación del impulso a la igualdad está consolidada en los departamentos del Gobierno Vasco, las diputaciones forales y en la mayoría de los municipios vascos, al menos en aquellos que cuentan con una dimensión significativa. Otras instituciones, como la UPV/EHU, también cuentan con plan de igualdad. En este sentido, cerca de la mitad de las instituciones participantes en el seguimiento cuentan con unidades de igualdad.
- 218 personas trabajaron para el impulso de la igualdad en las administraciones de la CAE en 2014, algo menos de dos personas de media por institución participante en la evaluación. La mitad del personal total identificado cuenta con formación específica en igualdad superior a 150 horas, y el 61% presenta dedicación exclusiva al impulso a la igualdad.
- 69 instituciones identificaron un presupuesto específico asignado a promover las políticas de igualdad, y lo han hecho por una cuantía que supera, en su conjunto, los 22 millones de euros (22.347.528 €). La identificación de presupuesto ejecutado, asciende a los 35.433.275 €. Suponen el 0,09% del total asignado y el 0,1% del total de presupuestos generales ejecutados en 2014 en las instituciones informantes.
- Casi nueve de cada diez del personal técnico que impulsa la igualdad en las administraciones vascas son mujeres.

- En torno a 2.671 personas que trabajan en las administraciones públicas de la CAE han seguido algún tipo de formación en igualdad. Son en su mayoría mujeres, en proporción claramente superior a su participación en la formación en general.
- Las acciones de sensibilización y formación, empoderamiento han sido el núcleo principal de las acciones desarrolladas por los poderes públicos vascos, una vez que el VI Plan establece como prioridad lograr un cambio de valores, que apoye la transformación desde un modelo androcéntrico a uno igualitario.
- Otra de las metas prioritarias, erradicar la violencia contra las mujeres, centra asimismo una parte significativa de los presupuestos identificados en este seguimiento.
- La mayoría de las intervenciones desarrolladas por las instituciones de la CAE buscan promover la igualdad desde un enfoque general, que abarca a hombres, mujeres y personas transgénero, sin identificar ningún grupo como objetivo particular, y solo en torno a un tercio de las mismas se han dirigido de forma específica a algún grupo.

La evaluación y el informe de cifras se pueden descargar desde la web de Emakunde

www.emakunde.euskadi.eus

